

Donostia, 2016ko urriaren 21a

## TABAKALERARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martin Garin, Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Tabakalerako zuzendari gerenteak dimisioa aurkeztu zuen irailaren 28ko Tabakaleraren Administrazio Batzordean, itxuraz Administrazio Kontseilua osatzen duten erakundeekiko desadostasunen eta bestelako irizpideen ondorioz.

Tabakalerako kultur proiektuak hainbat gorabeherarekin egin ditu lehen urratsak, administrazio zuzendaritzan zein kultur zuzendaritzan. Zuzendari gerentearen dimisioari buruz galdetu genuen batzordean jakinarazi zitzaigunez, berriro irekitzeko zegoen aurreko zuzendaria ordeztzeko hautespen prozesua.

Aurreikusten ziren eta gauzatu ez diren proiektuen artean dago eraikinean bertan hotel bat eta jatetxe bat kokatzea. Dena dela, gaur egun eraikinaren zati handi bat itxita dago, zati horrekin zer egin erabaki zain. Gure ikuspuntutik, ez da zentzuzkoa ezaugarri horiek dituen espazio bat erabilerarik ez izatea, gaur egun dauden beste espazio premia batzuei erantzuteko balia daitekeenean.

Hori dela eta, gure iritziz Tabakalerako Administrazio Kontseiluak eta zuzendari gerente berriak elkarlanean jardun beharko lukete eraikinaren aprobetxamendua bilatzeko –ikuspuntu ekonomikotik ez ezik, hirirako errentagarritasun sozialaren aldetik ere bai–.

Horrenbestez, honako kontrol mozio hau planteatzen dugu.

### KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Tabakalerako Administrazio Kontseiluaren barruan beste aukeraren bat planteatu dezala eraikinean okupatu gabe dauden espazioetarako, Donostiako gizarte eta kultura kolektiboek espazio bat izan dezaten haien jarduerak egiteko.

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.